



AUTOKARABANAZ EGITEN DEN TURISMOAREN HARRERA



Autokarabanaz bidaiatzea da erosotasuna gogoko duen izaera askeko pertsonaren beharrei bidezko erantzuna. Garraioa eta ostatua ahalbideratzen ditu, bidaiatzeko oinarri-oinarrizko baliabideak eta honako hitzetan isla zuzena duena: Askatasuna, independentzia eta mugikortasuna

2011ko udazkena, berrikusketa
José Hermo, Toni de Ros eta Arsenio Gutiérrez

Euskara, Loren Suarez Mendiolea

© Viajar en Autocaravana * Autocaravanismo Activo

Autokarabanaz bidaiatzea

Berehalako erabilerak ematen duen askatasuna da autokarabanaz murgiltzeko argudiorik onena, bidaia hasi aurretik ostatua ahalbideratzen duelako inolako erreserba egin beharrik gabe.

Beharrezko azpiegituraz osaturik erosotasun osoz bizitzeko adina aukera eskaintzen die bidaiariak:

- Jantokia
- Sukaldea
- Komuna (konketa, komunontzia eta dutxa)
- Logela
- Biltegia
- Berogailua
- Ur beroa



Era berean, autonomia ahalbideratzen duten bitartekariak:

- Energia elektrikoko metagailu autonomoak eta eguzki energiako plakak.
- Ur garbiko tanga (100/150 litro).
- Erabilitako ur tanga

Autokarabanaren autonomiaz baliatzeko, gune ekologiko bat behar dugu hondakinak kudeatzeko. Erabilitako ura eta materia organikoa saneamendu-sarera bideratuko du instalazioak, eta ur garbiko tanga betetzeko iturria ere izango du.

Autokarabana guztiek, xume zein modernoena izanik ere, sukaldea, harrikoa, hozkailua eta komunontzia dituzte bai eta honda-

kinak biltzeko tangak ere.

Legearen aldetik

Bidaiariak ostatzeko eta garraiatzeko antolaketa bereziko ibilgailua da, furgonetak eta pisu arineko kamioiak fabrikatzeko ibilgailu komertzialaren xasisa oinarri, zelula homologatua du erantsita etxebizitza moduan erabili ahal izateko.

Autokarabana ibilgailu eta etxebizitza da aldi berean, familiari oinarritzko baliabideak eskaintzen dizkiona bidaiatzeko: Garraioa eta ostatua.

Europako araudian, autokarabana bidaiariak garraiatzeko M mailako ibilgailua da. (2007ko legea/46/EE)

Zirkulatze, gelditze eta aparkatze kontzeptuei dagokienez, autokarabanak, oro har, (gidaria kontuan hartu gabe) zortzi pertsona, gehienik, garraiatu ahal dituen ibilgailuetarako aplikazio arauak izango ditu hizpide.



Autokarabana etxebizitza ere bada, familiari ostatua emateko baliabideak eta autonomia eskaintzen dituena. Beraz, ibilgailu eta etxebizitza da aldi berean.

Gelditzea eta gaua igarotzea

Udalek dituzten eskumenen artean honakoak ematen dira: *“Zirkulazioko Udal Ordenantzen bidez, herri barruko bideetako erabilerak arautu behar dituzte, eta hiru puntu ezkondu ondo: berdin banatu behar dituzte erabiltzaile guztien artean aparkalekuak; ibilgailuen trafikoa nahitaez erraza izan be-*



Kaputxinoa-Txapitula edo ganbara

Ohe biko ganbara gidari- kabinaren gainean.
Autokarabanean ostatzeko leku gehien eskaintzen duen modeloa.



Profilatua

Kabinatik hasitako kroskoak profil aerodinamikoa ematen dio, bikoteentzako beren beregiko modeloa.



Integrala

Egileak oinarritzko motorra eta xasisa abiapuntutzat hartuta, osoko karrozeria eratzen da.
Egileen goi mailako modeloak erosotasuna, edukiera eta aerodinamika batzen ditu.



Camper

Furgonetaren oinarritzko karrozeria duen ibilgailu egokitu-tua.
Edukiera galtzen du aerodinamikaren, mugikortasunaren eta zuhurtasunaren mesederako; ibilbiderako ezin hobea.

har da, betiere oinezkoak kaleetatik ibili ahal izateko moduan, eta aparkaldi mugaturako neurriak ere ezarri behar dituzte, aparkaldiak txandaka egingo direla bermatzeko..."(1)

"Herri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea udal-ordenantzen bidez arautuko da, eta zirkulazioa ez oztopatzeko behar diren neurriak hartuko dira, hala nola, aparkaldiaren iraupena mugatzeko ordutegiak, eta beste neurri zuzentzaile batzuk, ibilgailuak bertatik kendu eta gordailuan uztea barne, gidaria nor den jakin arte, aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe daudenean, edo baimendutako denboratik gora daudenean..."(2)

Udalerriko bide publikoan aparkaldiaren edozein muga edo hainbat erabiltzailerik aparkaldiaren bazterketa arrazoi objektibetan izan behar du beharreko oinarri sendoa, hala nola, baimendutako gehieneko neurriak edo pisua, ez ostera erabiltzeko zein antolatzeko irizpideagatik... (3)

Udalerriek Bide publikoan aparkatutako autokarabanaren erabilera ostatu moduan arautu ahal dute, horretarako, lekua, forma eta ordutegi jakinak ezarriko ditu gerta litekeen gehiegikeriak baztertu ahal izateko; era berean, aparkaldirako eta gaua igartzeko gutxieneko denbora baimenduko dute, eta bidaiariei atsedean hartzeko aukera emango zaie bai eta pertsonak garraiatzeko helburua duten ibilgailuei baimendutako

- (1) 339/1990 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, MARTXOAREN 2KOA, TRAFIKOARI, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO LEGEAREN TESTU ARTIKULATUA ONARTZEKO DENA (7b art.)
- (2) 1428/2003 ERREGE DEKRETUA, AZAROAREN 21EKOA, ZIRKULAZIO-ARAUDI OROKORRA ONARTZEKO DENA, BETIERE, TRAFIKOARI, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO LEGEAREN TESTU ARTIKULATUA, MARTXOAREN 2KO 339/1990 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAREN BITARTEZ ONARTUA, APLIKATU ETA GARATZEARREN (93.1 art.)
- (3) TRAFIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN INSTRUKZIOA 2008ko URTARRILAREN 26ko 08/v-74.

ekintzak ere.

Ibilgailua egoki aparkatuta, ezarritako bide marrak pasatu gabe eta aparkaldia, balego, errespetatua, autokarabanen bidaiaria ez da zertan bereizgarria izango baldin eta:

- Ibilgailu barruko aktibitatea kanpora ateratzen ez bada.
- Perimetroa gainditzen ez dituen objektuak barreiatzen ez badira, hala nola, esekilekuak, toldoak, nibelatze eta egonkortze gai-luak, etab... (instrukzioa 08/V-74)


Autokarabanismoa kopuruetan

Autokarabana kopurua Europan milioi bat eta hirurehun milatik gorakoa da.

2009an Europar Batasuneko autokarabana kopuru guztiaren 2/3 Alemanian, Italian, Frantzia eta Erresuma Batuan zegoen.

Harris (Frantzia 2008) zaletasun inkestaren arabera, kopuru honi guztiari Espainia bisitatzen duen 300 mila autokarabana gehitu behar zaizkio, betiere oporleku gisa edo Portugalera edo Marokora bidean.

Miles de unidades



Autokarabana bidezko turismoa ez da bakarrik urtaro zehatzetan ematen, baizik eta urte osora hedatzen da. Europa erdialdeko erretiratuen eta aurre-erretiratuen bikote piloak udazken zein negua ematen dute Marokoko kostalde atlantikoan disfrutatzen; gogoko eguraldia, eskariari egokitutako azpiegiturak eta prezio ezin hobeak dira, besteak beste, arrazoi nagusiak.

Turisten kopuru honen zati handi bat Espai-

niako Levante aldean eta Iberiar Penintsularen hegoaldean geratzen da behin-behinean bai eta Portugaleko Algarben ere; bertako azpiegiturek eta harrera ezin hobeak lagunduta.

Autokarabanista espainiarrak

Espainian hogeita hamabost milatik pasatxo autokarabana omen daude

2010ean burututako inkestaren arabera "Viajar en Autocaravana" (VEA), autokarabanisten ia % 60k 50 eta 100 egun bitartean erabiltzen du urtean eta %16,56k ehunetik gora. Inkestatuek urtean 10 mila eta

"bidaiatuz bizi izan" formulak honako zirrarak sorrarazten ditu: askatasuna, independentzia eta autonomia.

Autokarabana erosteko arrazoi nagusia independentzia dela irizten dio autokarabanisten %76k; %62k ostatzeko erreserbarik egin behar gabe bidaiatzeari egozten diote eta %30ek izadiarekin bat egite hutsagatik egiten dutela diote.

20 mila km bitartean egiten dituztela agertu dute.

Europa mailan giza antolaketa bera ematen dela agertu du aipatu inkestak.

Autokarabanaren bidairien batez besteko profila honelakoa da: bikotea, gehienetan euren seme-alaba txiki zein nerabeekin batera bidaiatzen duena.(1)

Turismo arduratsua eta iraunkorra

Turismo honen ezaugarrien artean normalean kultura berria, paisaiak eta lekuan lekuko ondare historikoa ezagutzeko joerak ematen dira.

Urtean zehar bidaiatzen da eta leku berean gau pare bat baino gehiago ez du emango. Urtean %19k hogeitaz baina gehiago erabiltzen du. %26k hamaika eta hogeitaz bitartean eta %38k sei eta hamar artean. %80k oporretan eta asteburuetan egiten du.(2)

(1) European Caravan Federation (ECF) 2009.

(2) Encuesta de Viajar en Autocaravana (VEA)k, 2010eko urtarrilean 500 pertsonaren gainean egindako inkesta.

Soziologoaren esanetan, lanaldiaren murrizketak eta oporraldia jarraian ez izateak erabateko isla izan dute aisialdiaz disfrutatzeari. Autokarabana bidezko turismoa honetaz probesten da beren beregi.

Autokarabanista gehienak eskarmentu handiko erabiltzaileak dira eta beren ibilgailua-

Autokarabana bidezko turismoa da erosotasuna gogoko duen izaera asketako pertsonaren beharrei bidezko erantzuna.

ren eta ostatuaren zaintza arduratsua egiten dute; hala ere, beste edozein egoeratan bezala, heziketarik gabekoak ere badira.

Orokorrean elkarbizitzarako arauak errespetatzen dira.

Gelditutakoan, ibilbide bat egitearekin batera, bidaiariak autonomia osoz arituko dira baldin eta bertan oinarritzeko beharrak asetzeko baliabide nahiko badute, ura hornitzeko eta hustutzeko, hain zuzen ere.

Turismo iraunkorra egiteko modua

Harrerari dagokionez, beste turismo motetana ez bezala (apartamentua, hotela edo



kanpina), autokarabana bidezko turismoak ez du haren inguruko eraldaketarik behar.

Ibilgailu honek, gutxienik, 28 m² besterik ez du behar leku lasai eta seguruan. Bide publikoan aparkatzeko lekua nahikoa izaten da turismoa ugaritzeko edozein herritan.

Aire zabalean izateko ibilgailu egokitua izanik, autokarabanistak ingurumena zaintzeko turismo ekologikoa praktikatzeko bilakatu dira.

Mugikortasunak, leku ezak eta autonomia

minimoak ohitura jakinak sendotu dituzte, autokarabanistek ura eta energia aurreztu ahal izateko.

Eragozpenik gabe bidaiatzea da autokarabanistaren xede nagusia; ibilbideak egitea askatasun osoz, indarrean dauden lege eta giza legeak errespetatuz.

Honengatik guztiagatik, autokarabana gehienek eguzki energiako plakak dituzte eta uraren kontsumoa 25/30 litro (egun/pertsona) izaten da; etxebizitzetan, berriz, batez besteko kontsumoa 166 litrokoa da.

Harrera guneak

Autokarabanistak ibilgailua erostearekin batera ostaturen gastua egin egiten du. Hotelean edo apartamentuetan ostatua hartzen duten gainontzeko turisten moduan lekuak ezagutzeko turismoa egiten du; izan ere, lekuen ondare historikoa bilatzen du, paisaiak ikusi, bertako kultura ezagutu eta gastronomia dastatuko du.

Guztion bizipenak partekatze aldera, turismo egonkoraren aldeko eta legeetatik harago diren portaera-kodeetako baloreak asumitzen dituzten klubetako bazkide egin izan dira autokarabanista ugari

- Taldekatzeak eragotzi.
- Aukerako leketan aparkatu.
- Lekuan lekuko komertzioaren alde egin.
- Portaera xotil eta zuhurra izan.
- Bisitatutako leketako biztanleekin harremanak egin

Turismo arduratsua gauzatze aldera, autokarabanisten klubek ingurumenarekiko errespetuaren aldeko aholku hauek helarazten dituzte.

Beharrak asetzeko moduan, Espainiako 200 udalerrik pasatxok autokarabanetarako harrera guneak eraiki edo sortu dituzte; gune ekologiko hauek ura hartzeko eta

hondakinak kudeatzeko izaten dira, noizik behin eta aparkatzeko gune bilakatzen dira.

Europar Batasunean hamar mila gune baino gehiago daudela kontuan hartuta, Espainiako kopurua oso eskasa da.



Gune ekologikoan, autokarabana lurreko plataformaren gainean jarrita erabilitako ura hustuko da estoldara.


Saneamendu sarean hustutzea ere nahikoa izango da komunontziaren hondakin organikoak hustutzeko.

Azkenik, iturriarekin autokarabanaren tankak garbitu eta urez beteko ditugu.

Udalerrien jarrera, harrera guneak sortzeko, herriko enpresen onurarako izateaz gain, erabaki estrategikoa izango da.



Ekimen publikoak eta pribatuak bat egiten dute 100 gune pasatxorekin: atsedeneak, gasoil-zerbitzuguneak, kanpinak, aisialdirako guneak, ostalaritzako eta jatetxetako eskaintzak, besteak beste, oso harrera ona izan duen camper park zerbitzua gehitu behar da.



Autokarabanetarako zerbitzu gune edo hondakinak kudeatzeko gune garbirako proiektua

(1) Ustutzeko plataforma, (1.1) Erabiltako uretarako estolda, (2) Iturria, (3) Komunontzirako estolda.